

Ebete hizkuntza–zerbitzuak

Irakasleentzako ikastaroak

2023–2024 ikasturterako

Ebete hizkuntza–zerbitzuetatik irakasleei begira egiten dugun formazio eskaintza aurkezten da ondorengo orrietan. Haur eta nerabeak eleaniztunak izatera iritsi daitezzen lan egiten da ikastetxeetatik, eta bide horretan lagungarriak izan daitezkeen baliabideak eta tresnak eskaintzen dizkiegu Ebetetik irakasleei.

Hiru norabidetako baliabideak dira:

- Euskararen erabilera sustatzera begirakoak baliabideak eta tresnak: ikasleen euskararen erabilerarekiko irakasleen jokabidea adostea, ikasgelan erabilera babesteko proposamenak, eta lagungarri izan daitezkeen beste zenbait tresna.

- Hizkuntza–gaitasuna eta ahozkotasuna lantzerakoak baliabideak. Hizkuntza–gaitasunari dagokionez Hizkuntza Trataera Integrala garatzeko oinarriak eta proposamenak, eta ahozkotasunari dagokionez ahozko jarduerak laburrak, ekintza komunikatibo proposamenak eta hizkuntza–jolasak.

- Hizkuntzarekiko jarrerak lantzerakoak oinarriak eta jarduerak: hizkuntza–sozializazioan laguntzea oinarri norabide moduan hartuz, hainbat ideia eta proposamen.

Ebete hizkuntza–zerbitzuetatik gai hauen inguruan irakasleentzat formazioa eskaintzen dugu. Azken urteetan hainbat eta hainbat ikastetxetan gabilta irakasleekin lanean. Urtero 40 ikastetxe baino gehiagotan egiten ditugu ikastaroak eta saio puntualak.

Ikastaroek ikuspegi praktikoa dute, eta eguneroko lanerako tresnak proposatzeko ahalegina egiten dugu. Hori dela eta, urtez urte tresnak eta adibide berriak lantzen eta eskaintzen jarraitzen dugu.

Zuen ikastetxean gai hauen inguruko formazioa gurekin egin nahi baduzue hainbat aukera dituzue. Ondorengo orrietan edukiei eta antolaketa dagozkion



aukera ezberdinak aurkezten dira. Baina hoberena zuzenean gurekin harremanetan jartzea da. Gurekin harremanetan jartzen bazarete, aukera ezberdinen ezaugarriak azalduko dizkizuegu eta zuentzat egokiena ikusten duzuenak aukeratu ahal izango duzue.

Ebetetik azken urteetan landu ditugun eduki gehienak gure webgunean aurkituko dituzue:
www.ebete.eus

Aukerak

Hainbat aukera daude iraupena eta ezaugarriei dagokionez:

-**Ikastaroak:** bai oinarrizko ikastaroak baita jarraipena egitera begirakoak edo eduki batzuk garatzera begirakoak ere. Iraupena eta ezaugarriak ikastetxeko arduradunekin adosten dira.

-**Aurkezpen saioa:** bi orduko saio bakarra. Oinarri nagusienak aurkezten dira eta hainbat adibide eta tresna ikusten dira, baina edukietan sakondu gabe.

-**Jarraipen saio puntualak:** aurretik ikastaroa egin izan duten ikastetxeetarako aproposa. Urtean zehar saio bat edo bi izan daitezke, lehendik landutakoa erreparatzeko, urrats berriak adosteko, edota adibide eta tresna berriak aurkezteko egiten dira.

Ikastaro hauek Irale bidez ikastetxean bertan egiteko aukera egon daiteke

Ikastaroak Irale bidez egiteko urratsak	Iraleko deialdian agertzen diren epeen barruan eta urratsak jarraituz egin behar da eskaria. Ebetetik H12 eta I8 ikastaroak eskainiko ditugu. Eskaria egiten baduzue, jarri gurekin harremanetan hori adieraziz eta antolaketara begirako urratsak emango ditugu.
Ikastaroak edo saioak Iralez kanpo egiteko urratsak	Landu nahi dituzuen edukien eta egin nahi dituzuen saio kopuruaren arabera proposamen zehatz bat aurkeztuko dizuegu. Aurrekontu bat bidaliko dizuegu. Eskola kontzertatu eta Ikastolen kasuan <i>Fundae</i> bidez egiteko aukera ere baduzue.

Ikastaro ereduak

Erabileran eragiteko eta Ahozkotasuna lantzeko oinarriak eta tresnak lantzeko ikastaroa

Helburuak

- Ikasleen euskararen erabileran eragiteko oinarri nagusienak ezagutzea, eta hainbat estrategia eta tresna ikustea.
- Ikasleen euskararekiko jarreretan eragiteko eta hizkuntza-sozializazioan norabideak eta helburuak aztertzea, eta hainbat jarduera ikustea eta frogatzea.
- Gurasoak irakasleen norabide berean aritu daitezen, gurasoei eman nahi zaizkien mezuak aztertzea eta adostea, eta horiekin lotutako tresnak aurkeztea eta eskolan erabili ahal izateko egokitzea.

Ikastaroaren ezaugarriak

Guztira bi orduko bost saio izango dira. Taldeak etapaka antolatzen dira: HH, LH eta DBH-Batxilegoa. Ikastetxe txikia denean talde bakarra osatzen da.

Etapako bakoitzera egokitutako proposamenak egingo dira eta hainbat adibide ikusiko dira saioetan.

Saioetan hainbat oinarri aurkeztuko diren arren, ikastaroari ahalik eta izaera praktikoena eman nahi zaio: ariketa asko egingo dira eta proposamen zehatzak ere aurkeztuko dira. Landutakoa frogatzea nahi da, eta irakasleek ikustea hainbat bide eta aukera badituztela erabileran eragiterako orduan.

Lantzen diren eduki guztiak idatziz ere pasako zaizkie irakasleei. Ikastaroaren hasieratik izango dute lantzen den guztiaren materiala esku-artean.

Eduki nagusiak

- Abiapuntua: eskolaren norabidea eta mugak
- Oinarri nagusiak:
 - Hezitzaile Berritsuak
 - Gutxieneko helburua ikasleen euskararen erabilerari dagokionez
 - Irakasle taldeak hartu beharreko jarrera eta zaindu beharreko prozedura
- Ulermen estrategien lanketa:
 - Erabilera eta gaitasuna garatzeko lehen urrats moduan, ulermen estategien baliagarritasuna ikustea
 - Ulermenaren hiru dimentsioak eta ulermena lantzeko hiru aldiak aztertzea eta erabiltzeko aukerak ikustea
- Elkarrizketa itxiak eta hizkuntza-jolasak (*Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*):
 - Oinarriak eta adibideak
 - Proposamen zehatz bat aurkeztea eta aurrera eramatea: egunerko esamoldeen lanketa
- Ahozkoa oinarri duten jarduerak (*Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan*):
 - Oinarriak eta adibideak
 - Programazioan txertatzeko aukerak aztertzea
- Txokoetan ahozkoa indartzera begirako jarduerak (*Haur Hezkuntzan*):
 - Oinarriak eta prozedurak aurkeztea
 - Hainbat adibide aurkeztea
 - Praktikara eramatea
 - Programazioan txertatzeko aukerak aztertzea
- Gurasoak eta eskola norabide berean (*Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*):
 - Oinarriak, mezuak eta gurasoen kezkek
 - Guraso bileretan mezu egokiak emateko bideak eta tresnak
 - Lehen Hezkuntzan ere egin daiteke ikastetxetik horrela eskatzen bada
- Ikasleen euskararekiko motibazioan eragitea (*Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan*):
 - Oinarriak: hizkuntza-sozializazioa, hizkuntzarekin harremana eta hizkuntza-ohituretan eragiten duten faktoreak
 - Hainbat proposamen praktikoa
- Patiora begirako jarduerak (*Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*)

Saio bakoitzaren behin behineko edukiak

	Bigarren Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Haur Hezkuntza
Lehenengo saioa	<p>–Erabileran eragiteko oinarriak eta estrategiak: eskolaren norabidea eta mugak azaltzea, gutxieneko helburu bat adostea eta irakasleok horri begira hartu beharreko jokabidea adostea.</p>		
Bigarren saioa	<p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak: <i>Ahozkoa oinarri duten jarduerak.</i> Ahozkoa lantzeko jarduera adibideak eta prozedura ikustea.</p>	<p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak: <i>Elkarrizketa Itxiak eta Hizkuntza-jolasak ikustea.</i></p>	<p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak ikustea: <i>Simulazioak eta Txokoekin lotutako jarduerak.</i></p>
Hirugarren saioa	<p>–Erabileran eragiteko oinarriak eta estrategiak: ekimen praktikoaren balorazioa egitea eta tresna lagungarriak aurkeztea.</p> <p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak: <i>Ahozkoa oinarri duten jarduerak.</i> Ahozkoa lantzeko jarduera adibideak eta prozedura ikustea.</p>	<p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak: Proposamen zehatz bat aurkeztea eta ekimen bat adostea. <i>Elkarrizketa Itxiak eta Hizkuntza-jolasak ikustea eguneroko esamoldeekin lotuta, eta Hezitzaile Beriritsu erronka.</i></p> <p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak: <i>Ahozkoa oinarri duten jarduerak.</i> Ahozkoa lantzeko jarduera adibideak eta prozedura ikustea.</p>	<p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak ikustea: <i>Simulazioak eta Txokoekin lotutako jarduerak.</i> Ikasleekin aurrera eramateko egokitzea.</p>
Laugarren saioa	<p>– Motibazio jarduerak: oinarriak aurkeztea eta hainbat jarduera adibide ikustea. Ludikoak,</p>	<p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak: <i>Ahozkoa oinarri duten jarduerak.</i> Planifikatzeko modua</p>	<p>–Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak ikustea: <i>Simulazioak eta Txokoekin lotutako jarduerak.</i> Ikasleekin</p>

	hausnarketa oinarri dutenak eta Ahobizi jarduerak.	aztertzea. – Motibazio jarduerak: oinarriak aurkeztea eta hainbat jarduerak adibidea ikustea. Ludikoak, hausnarketa oinarri dutenak eta Ahobizi jarduerak.	aurrera eramateko egokitzea.
Bosgarren saioa	<ul style="list-style-type: none"> – Motibazio jarduerak: hizkuntza-sozializazioaren ikuspegia aurkeztea eta hortik lan egiteko aukerak ikustea. – Ulermen estrategiak: oinarriak eta adibideak lantzea. – Aurrera begirako aukerak aztertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> –Erabileran eragiteko estrategia eta tresnak: <i>Elkarrizketa Itxiak</i> eta <i>Hizkuntza-jolasak ikustea, egindako ekimena baloratzea.</i> – Ulermen estrategiak: oinarriak eta adibideak lantzea. – Aurrera begirako aukerak aztertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> –Gurasoak irakasleen norabide berean: gurasoei eman beharreko mezuak aztertzea eta guraso bileretan mezuak emateko tresnak prestatzea. –Aurrera begirako aukerak aztertzea.

Ahozko egituren lanketa planifikatzera begirako ikastaroa

Helburuak

- Euskara gaitasunari dagokionez helburuak zein diren ikustea, eta bereziki ahozko gaitasunari begiratzea
- Testu-generoen mapa egitea (edo errepasatzea) eta ahozkoaren lanketari arreta berezia ematea
- Ahozkotasunaren lanketa jarduera zehatz eta laburren bidez egiteko aukera aztertzea
- Jardueren planifikazioa egitea eta programazioan txertatzea

Ikastaroaren ezaugarriak

Guztira bi orduko bost saio izango dira. Taldeak etapaka antolatzen dira: HH, LH eta DBH-Batxilegoa. Ikastetxe txikia denean talde bakarra osatzen da.

Etapako bakoitzera egokitutako proposamenak egingo dira eta hainbat adibide ikusiko dira saioetan.

Ikastaroak izaera praktikoa du: oinarri batzuk landuko diren arren, hasiera hasieratik norabidea jarduerak ikustea, hautatzea eta planifikatzea izango da. Baina helburuak eta oinarriak argi edukita. Horretarako, erabileran eragiteko oinarrizko estrategiak ere landuko dira.

Lantzen diren eduki guztiak idatziz ere pasako zaizkie irakasleei. Hasieran eduki batzuk izango dituzte, baina ikastaroan zehar eduki berriak sortuko direnez, amaieran beste hori guztia ere izango dute.

Eduki nagusiak

- Abiapuntua: Heziberri, Europar Markoa, Irteera profilak eta ahozkoari arreta berezia jartzearen beharra.
- Erabileran eragiteko oinarrizko estrategiak: gutxieneko helburua eta hezitzaile berritsuaren jokabidea.
- Ahozkoan zer landu nahi den planifikatzeko urratsak: Testu-generoen mapa
- Ahozko jarduera laburren aurkezpena
 - Jardueren ezaugarriak: erabilera itxia, bideratua eta irekia
 - Jarduera adibideak ezaugarrien arabera
- Ahozko jarduera laburren planifikazioa (*Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntza*):
 - Gaiak eta arloak hautatzea
 - Agurrak, lagunartea, eguraldia, aisialdia, elikadura...
 - Informazioa ematea/eskatzea, aholkuak ematea/eskatzea, jarraibideak ematea...
 - Programan noiz eta nola erabiliko diren aztertzea
 - Ekintza komunikatiboak prestatzea
 - Erabilera itxia: Hizkuntza-jolasak, esketxak, eta abar.
 - Erabilera bideratua: Simulazioak, ahozko dinamikak, eta abar.
 - Erabilera irekia: Ahozko jarduera bideratuak, debateak, eta abar.
 - Jarduerak aurrera eramatea eta baloratzea
- Ohiko ahozko jardueren lanketa (*Bigarren Hezkuntza*):
 - Ohikoak diren eta arlo ezberdinetan erabiltzen diren ahozko ekintza komunikatiboak zerrendatzea eta horietako batzuk hautatzea
 - Ekintza komunikatiboak aztertzea: plan orokorra, errubrikak, testu eredugarriak, trebatze tresnak eta lanketa egiteko bestelako baliabideak
 - Jarduerak aurrera eramatea eta baloratzea

Saio bakoitzaren behin behineko edukiak

	Bigarren Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Haur Hezkuntza Kasu honetan, <i>Lehenengo urratsa</i> eta <i>Bigarren urratsa</i> deituriko ikastaroak oso antzekoak dira. Han landutakoaren garapen bat litzateke planifikazioari begira.
Lehenengo saioa	<p>–Ahozkoaren lanketaren beharra: Heziberri eta Europa markoa</p> <p>–Erabileran eta ahozkoan eragiteko oinarrizko estrategiak</p>		
Bigarren saioa	<p>–Ahozko jarduera laburren adibidea: Erabilera itxia, erabilera bideratua eta erabilera irekia.</p> <p>– Ahozko testu–generoen mapa: zer landu nahi dugu maila bakoitzean?</p> <p>– Irteera profilak: zein gaitasun lortzea nahi genuke ziklo bakoitzean?</p>		<p>– Ahozko jardueren aurkezpenak: simulazioak, hizkuntza-jolasak, hizkuntza-errutinak...</p> <p>– Ahozko testu–generoen mapa: zer landu nahi dugu? Zein izango da progresioa?</p>
Hirugarren saioa	<p>–Ahozko jarduera laburren planifikazioa: ohiko ahozko jarduerak zerrendatzea eta batzuk hautatzea.</p> <p>–Ahozko jarduera laburren prestaketa: ekintza komunikatibo batek dituen ezaugarriak ikustea.</p>	<p>–Ahozko jarduera laburren planifikazioa: maila bakoitzerako gaiak eta arloak hautatzea.</p> <p>–Ahozko jarduera laburren prestaketa: jarduerak prestatzen hastea.</p>	<p>– Ahozko jardueren planifikazioa: kolektibak, txokoak, patioa...</p> <p>– Ahozko jardueren prestaketa: jarduerak prestatzen hastea.</p>
Laugarren saioa	<p>–Ahozko jarduera laburren prestaketa: jarduerak aurkeztea, aztertzea eta adostea. Aurrera eramatera gonbidatzea.</p>	<p>–Ahozko jarduera laburren prestaketa: jarduerak prestatzea eta aurrera eramaten hastea.</p>	<p>– Ahozko jardueren prestaketa: jarduerak prestatzea eta aurrera ematen hastea.</p>
Bosgarren saioa	<p>–Ahozko jarduera laburren prestaketa: jarduerak prestatzea eta aurrera eramatea.</p> <p>– Aurrera eramandako jardueren balorazioa egitea.</p>		<p>–Ahozko jardueren prestaketa: jarduerak prestatzea eta aurrera</p>

	<p>- Programazioan ondo txertatzeko aukerak aztertzea.</p>	<p>ematea.</p> <ul style="list-style-type: none">- Aurrera eramandako jardueren balorazioa egitea.- Programazioan ondo txertatzeko aukerak aztertzea.
--	--	--

Hirugarren urratsa:

Hizkuntza Trataera Integral eta Integratura hurbilpena Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan

Helburuak

1. Hizkuntzen Trataera Integrala garatzera begira, koordinatuta landuko diren testu-generoak adostea, eta hizkuntzetan horien lanketa egiteko modua eta beste arloekin lotzeko modua garatzea.
2. Arloetan/proiektuetan ekintza komunikatiboen bidez zer landuko den adostea eta ekintza komunikatibo horietarako behar diren tresnak prestatzea.

Ikastaroaren ezaugarriak

Guztira bi orduko sei saio izango dira. Lehen Hezkuntzara eta Bigarren Hezkuntzara begirako ikastaroa da.

Ikastaroak izaera praktikoa du: Hizkuntza Trataera Integralera eta Integratura hurbilpen praktiko bat egin nahi da. Oinarrietatik abiatuz, baina dinamika eta ekintza komunikatiboen bidez praktikara eramateko ahalegina eginaz eta lanketa horrek zer aukera ematen dituen esperientziaren bidez ikusiz.

Eduki nagusiak

- Hizkuntza Trataera Integrala eta Hizkuntza Trataera Integratua. Bakoitzaren ezaugarriak eta bien arteko lotura.
- Oinarriak: Heziberri, Europar Markoa eta Irteera profilak
- Testu-generoen mapa: hizkuntzen artean koordinatuta zein testu-genero eta zein ikasmailetan landuko diren zehaztea
- Koordinatuta landuko diren testu-generoen lanketa egitea: bakoitzaren ezaugarriak (antzekotasunak eta ezberdintasuna), hizkuntzen arteko transferentziak eta erreferentziak, eta abar.
- Beste arloekin lotura: arloen ezaugarriak kontuan hartuz, zein testu-genero landu daitezkeen zehaztea, eta arloetan zer eta nola landu zehaztea: hizkuntzaren lanketa bistaratzea, ulermen estrategiak, errubrikak eta abar.
- Arloei begira ekintza komunikatiboak lantzea testu-generoen mapa eta irteera profilak kontuan hartuz:
 - Konpetentziak formulatzea
 - Arazo-egoerak zehaztea
 - Ekintza komunikatiboak zehaztea
 - Plan orokorrak eta azken produktu ereduak garatzea
 - Azken produktura iristeko prozesua eta trebatzea: zer den erakusgarria, testu eredugarriak eta trebatze-jarduerak.
 - Ebaluazio errubrikak
- Trebatzea nola egingo den zehaztea: zer landuko den hizkuntza-arloetan eta zer beste arloetan edo proiektuetan.
- Tresnak garatzea: trebatze-jarduerak, testu eredugarriak, errubrikak eta abar.

Saio bakoitzaren behin behineko edukiak

Lehenengo saioa	<ul style="list-style-type: none">• Hizkuntza Trataera Integrala eta Hizkuntza Trataera Integratua. Bakoitzaren ezaugarriak eta bien arteko lotura.• Oinarriak: Heziberri, Europar Markoa eta Irteera profilak• Testu-generoen mapa: zer den gogoraraztea eta lehendik osatuta baldin badago, erreparasatzea.• Ikuspegi komunikatiboa: zer den ikustea, Hizkuntza Trataera Integrala lantzeko bide moduan zein aukera ematen dituen aztertzea.
Bigarren saioa	<ul style="list-style-type: none">• Irteera profilak: zer diren ikustea eta ikasmaila bakoitzerako eta hizkuntza bakoitzerako zehaztea• Testu-generon mapa: hizkuntzen artean koordinatuta zein testu-genero eta noiz landuko diren zehaztea. Ahoz edo idatziz izango de zehaztea.• Ikuspegi komunikatiboaren oinarriak eta urratsak lantzea: konpetentziak, arazo-egoerak eta ekintza komunikatiboak
Hirugarren saioa	<ul style="list-style-type: none">• Testu-generon mapa: testu-generoen mapan koordinatuta lantzea adostu diren testu-genero horiek ekintza komunikatiboen bidez zein arlotan aurrera eramango diren zehaztea.• Ikuspegi komunikatiboaren oinarriak eta urratsak lantzea: plan orokorra, zer den erakusgarri, aurre-produkzioa, trebatze-tresnak, testu eredugarriak, amaierako produkzioa eta errubrikak.• Ziklo bakoitzean aukeratu den testu-genero bat eta dagokion arloa hartzea, eta ekintza komunikatiboa lantzen hastea.
Laugarren saioa	<ul style="list-style-type: none">• Ekintza komunikatiboak lantzea: testu-generoen mapan jasotakoaren arabera lantzea. Trebatze-tresnak lantzerakoan zein hizkuntzatan eta nola landuko diren zehaztea.

Bosgarren saioa	<ul style="list-style-type: none">• Ekintza komunikatiboak lantzea: testu-generoen mapan jasotakoaren arabera lantzea. Trebatze-tresnak lantzerakoan zein hizkuntzatan eta nola landuko diren zehaztea.• Ziklo bakoitzeko ekintza komunikatibo bat Hizkuntza Trataera Integralaren ikuspegitik aurrera eramatea.
Seigarren saioa	<ul style="list-style-type: none">• Aurrera eramandako ekintza komunikatiboen balorazioa egitea eta ikuspegi honen baliagarritasuna ikustea.• Ekintza komunikatiboak lantzea: testu-generoen mapan jasotakoaren arabera lantzea. Trebatze-tresnak lantzerakoan zein hizkuntzatan eta nola landuko diren zehaztea.• Balorazioa egitea eta aurrera begirako aukerak aztertzea.